



## Beste batzuk

Epe hori konputagarria izango da antzinakotasunean eta lanbide-karreraren. Gainera, hiru urte horiek %100eko kotizazioa izango dute gizarte segurantz. Lanpostua, gutxienez, bi urtez erreserbatuko da. Epealdi horretan Osakidetza ikastaroetan parte hartzeko aukera dago.

Gainera, lan-baldintzen akordioaren 63. artikulua lanaldia murrizteko aukera ematen dizu. Gutxienez heren bateko murrizketa eska dezakezu eta gehienez, erdikoa. Soldata proportzionalki murriztuko da, baina gizarte segurantzako kotizazioa %100ekoa izango da urte batez.

**Ezkonduko naiz eta ezkontzaren bi egun ondoren hasiko den kontratu bat eskaini didate. Penalizatorik ezarri ahal didate kontratua ukatzen badut?**

Eskaintzen dizuten kontratua ezkontza egunaren ondorengo 19 egunetan hasten denean, ez duzu inolako zigorrak jasoko hori ukatzeagatik. Gauza bera gertatzen da ezkontza bidez egiten ez diren bikoteen bateraketetan, dagokion bizikidetzat ziurtagiria aurkeztuz.

**Nire bikotea ingresatu dute eta egun berean ordezkapen kontratu bat eskaini didate. Kontratua uka dezaket?**

Bai, ordezkapen zerrendetako kontratuak uka daitezke 2. gradurainoko senide baten gaixotasun larria, ospitalizazioa edo heriotzaren kasuan; lan-baldintzen akordioan egoera horietarako ezarritako epealdian.

**Indarrean dagoen arauaren arabera, 2019ko urriaren 1ean. Etorkezunean aldaketak egon daitezke.**

### Non gaude

Euskadiko Erizaintza Sindikatua  
Garellano plaza, 14, atzekoa  
Tel: 944745478 euskadi@satse.es  
<http://euskadi.satse.es/eus>

 @SATSE\_euskadi

 SATSE. Euskadi

**Ba al dugu baimenik bataio eta jaunartzetan?**  
Bai, seme/alaben edo biloben bataio eta jaunartzetan ospakizun egunerako baimena dugu eta gauez lan eginez gero aurreko gaua hartzeko aukera duzu.

**Euskadiko izateko bikoteen erregistroan inskribatuko naiz nire bikotekidearekin. Baimenen bat dagokit?**

46. artikulua arabera 20 egun naturaleko baimena daukazu, ezkontzetan bezala. Egun horiek erregistroko ziurtagiria hartu aurretik edo ondoren har ditzakezu eta egun hori ere baimenaren barruan jasota dago. Lau urte igaro arte ezin izango da baimen hori berriro eskatu eta inoiz ez bikotekide berarekin.

**Baimena daukat nire anai/arrebaren ezkontzarako?**

Egun natural bateko baimena daukazu 2. gradurainoko senide baten ezkontzagatik. Baimena 3 egun naturalekoa izango da ezkontza 150 km baino urrunago ospatzen denean.

**Nire ama larriki gaixotu da, zeintzuk dira lanaldia murrizteko ditudan aukerak?**

Lan-baldintzen akordioaren 52. artikulua arabera, %50rainoko lanaldi-murrizketa eska dezakezu, **ordainpeko izaerarekin** eta gehienez hilabete batez. Medikua txostena aurkeztu behar diozu zure zerbitzu-erakundeari eta berak erabakiko du baimena ematea ala ez ematea.

**Nire aitak/amak mugikortasun arazo bat edo gaixotasun kroniko bat dauka. Hura zaintzeko baimena eska dezaket?**

Lan-baldintzen akordioaren 62. artikulua jasotzen denaren arabera, 2. gradurainoko senideak (edo gradu altuagokoak, elkarrekin biziz gero) zaintzeko eskubidea izango duzu egoera horretan. Medikua txostena aurkeztuz gero 50 orduko ordaindutako baimena eska dezakezu. Ordu horiek hartzeko modua zerbitzu-erakundearekin adostu beharko duzu. Baimena hartzen duzun unean zenbatzen hasiko da urtea.

Era berean, 75. artikulua arabera, **Osakidetza langileek** eszedentzia bat eskatzeko eskubidea dute 2. Gradurainoko senideak zaintzeko (inoren laguntzarik gabe bizi ezin direnak eta soldatarik ez dutenak). Eszedentzia hori ezin izango da hiru urte baino gehiagokoa izan.

**SATSE**

**LANA ETA FAMILIA  
BATERATZEA**

**SATSEekin  
INFORMA  
ZAITEZ**



**OSAKIDETZAKO  
LANGILEENTZAT**

**ESI**

**ZURE ORDEZKARI SINDIKALAK**

Izena: telefonoa - e-posta

Izena: telefonoa - e-posta

**Kontsulta iezaguzu!**

# Haurdunaldia, jaiotza eta haurren zainketa erantzunkidea

## Erditza prestatzeko klasetara joateko baimena daukat?

Lan-baldintzen akordioaren 43. artikulua arabera, haurdun dauden langileek **eskubidea dute**, baita jaio aurretiko azterketetara joateko ere, zure laneko ordutegitik kanpo egin ezin dituzula justifikatuz. Aitak izango direnek ezin dute.

## Haurdunaldiaren 8. hilean nago. Kontratazio zerrendei dagokienez, zein egoeratan nago?

Kontratu batean bazaude eta haurdunaldiko arriskua aitortuta badaukazu, kontratua amaitzean berriz ere libre egongo zinateke kontratazio-zerrendetarako. Zentzu horretan, kontratua badagokizu, eman behar dizute eta zuk zure egoeraren berr eman beharko duzu. Lanpostua haurdunaldiarekin bateraezina denean, arrisku egoera aitortuko dizute berriz.

Indarrean duzun kontratua aldi baterako ezintasun (ABE) egoeran bukatzen bada, ez zara beste kontratu baterako libre egongo alta medikoagatik berraktibatzen zaren arte. Momentu horretan, deia jasotzeko eta kontratua hasteko eskubidea izango duzu. Gainera, haurdun zaudela esan komunikatu behar duzu, izan dezakezun arriskua aztertu dezaten.

## Erditu naiz edo beste aita/ama naiz eta kontratazio zerrendetan libre nago, baina haurren jaiotza eta zaintzari lotutako baimena daukat. Zein da nire egoera kontratuen eskaintzen aurrean?

Niri dagozkidan kontratu guztiak eskaini behar dizkidate, onartuko ditut eta altan jarriko naute gizarte segurantzari, baina jaiotza eta zaintza baimenarekin jarraituko dut.

## Zenbat aste ditu haurren jaiotzarako eta zaintzarako baimenak?

**2019ko irailaren 1etik aurrerako jaiotzetan, amek eta aitek 18 asteko baimena izango dute.** Aste horiek bi astetan luzatuko dira haurra ezgaitasun batekin jaio denean. Erditze anizkoitzetan, bi aste gehiago izango baimenak, haur bakoitzeko.

## Nola hartzen dira edoskitze orduak amatasun baimenaren ondoren?

Aitek eta amek lan egun bakoitza ordu batean murrizteko eskubidea dute haien lan karteldegia arabera, nahiz eta lanaldi murriztua izan. Ordu hori bi zatitan banatu daiteke, lanaldiaren hasieran edo amaieran eta haurrek 12 hilabete egiten dituen arte.

Edoskitze orduak bateratu daitezke, oporrei eta ernaldi lizentziari lotuta joaten den bitartean.

## Jaiotza eta zaintza baimena bukatu zait. Aurreko urtean hartu ez nituen oporrak eta norberaren gauzetarako egunak har ditzaket?

**Bain, ondorengo ordenean: edoskitzea eta oporrak.** laz hartu ez zenituen norberaren gauzetarako egunak galdu egin dituzu.

## Haurdun nago, gaueko txandarik ez egitea eska dezaket?

**Bai,** erditzearen aurreko hiru hilabeteetan bazaude goardiari eta gaueko txandarik ez egiteko eskubidea duzu. Era berean, amatasun eta edoskitze baimenak amaitzean, goardiak eta gauak ez egiteko eskubidea izango duzu hiru hilabetez.

Haurdunaldiaren ostean soilik eskatzen denean, sei hilabeteko eskubidea izango duzu behin amatasun eta edoskitze baimenak amaitu direla. Eskubide hau akordioaren 44. artikuluan jasota dago.

Nolanahi ere, urteko lanaldiari dagozkion orduak bete behar dituzu eta Zuzendaritzak zerbitzuz alda zaitzake epealdi horretan.

## Haurdunaldian edo edoskitze epealdian nago eta nire egoeraren berri eman diot lan osasuneko oinarrizko unitateari eta azken horrek nire lanpostuaren baldintzak aldatu ditu. Zeintzuk dira nire eskubideak?

Orain dela gutxi jurisprudentziaren arabera, lanpostuaren adaptazioa aurretik jasotzen zenuen lansari berdina kobratu behar duzu. Hortaz, soldata gutxitu dela ikusten baduzu jar zaitez harremanetan sindikatuarekin.

## Jaiotza eta zaintza baimenean nago. Osakidetzaren ikastaro bat egin dezaket?

**Bai,** 44. artikulua arabera Osakidetzaren ikastaroetan parte hartzeko aukera izango duzu.



## Ume goiztiarra izan dut eta ospitalean dago ni jaiotza eta zaintza baimenarekin nagoen bitartean. Ba al dut berriazko eskubiderik egoera honetan?

Erditze goiztiarren edo erditu eta ondorengo 30 egunetan ospitalizaturik egon behar diren haurren kasuetan, jaiotza eta zaintza baimena bertan behera uztea eskatzeko eta lanera itzultzeko eskubidea daukazu, alta jaso arte. Kasu horretarako berriazko lizentzia bat dago: eguneko lanalditik 2 ordu murrizteko eskubidea izango duzu, soldata osoa mantenduz. Gainera, 2 ordu gehiago murriztu ahal izango dituzu, dagokion soldataren murrizketa proportzionalarekin.

Amak soilik bertan behera utz dezake jaiotza eta zaintza baimena erditzetik 6 aste pasa direnean.

Prestazioa berriz hasten denean, baimena haurra ospitalizatuta egon den egun kopuru berdinean luzatuko da, gehienez 13 aste.

## Kontratu bat eskaini didate eta 5 urteko ume bat daukat. Penalizazioa izan dezaket ukatzeagatik?

**Ez.** Umeak 12 urte bete arte lan eskaintza bat uka dezakezu inolako zigorririk gabe. Justifikazioak, gutxienez, hilabete bateko iraupena izango du eta ezin izango da urte naturalean hiru aldiz baino gehiago eskatu. Epealdi hori bukatzen denean berraktibazioa eskatu ahal izango duzu.

## Nire haurrek 8 urte ditu. Zein proportzioan murriztu dezaket nire lanaldia?

Osakidetzako langile finkoek lanaldiaren murrizketa eskatzeko eskubidea izango dute umeak 12 urte betetzen dituen egunera arte. Gutxienez, lanaldiaren heren batekoa izango da murrizketa eta, gehienez, erdikoa. Soldata ere proportzionalki murriztuko da. Murrizketaren lehenengo bi urteetan kotizazioa %100ekoa izango da. Finkoak ez diren langileen kasuan, eskubide berdina izango du bere kontratua irauten duen bitartean.

## Nire 14 urteko seme/alabari pasaporte edo NAN dokumentua egitera laguntzeko baimena daukat?

Ez, baimen hori soilik ematen da desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumen urritasuna duten 2. gradurainoko senideen kasuetan. Baimena laneko ordutegitik kanpo egin ezin diren tramite zehatzetarako izango da.

## 12 urte baino gutxiagoko seme/alaba bat dut, kontratazio eskaintzarik egin ez diezadaten eska dezaket?

**Bai,** 12 urte baino gutxiagoko haur baten zaintzagatik edozein kontratazio eskaintza ukatu ahal izango duzu, baldin eta ukapena hilabete bateko gutxieneko iraupena badu eta ezin izango da urtean hiru aldi baino gehiagotan eskatu. Ukapena idatziz egin behar da, dagokion dokumentazioa atxikituz, eta inskribatuta zauden kategoria eta zerrenda guztiei eragingo dio.

Aldi baterako ukapen hori ondorengo kasuetarako ere eska daiteke: soldatapeko jarduerarik egiten ez duen eta adin, gaixotasun edo istripu arrazoiengatik desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumen urritasuna duen 2. gradurainoko senideen zainketa.

## Osakidetzako langile finkoa naiz eta seme/alaba bat izan dut. Zenbateko eszedentzia har dezaket bere zaintzarako?

Osakidetzako langile finkoek hiru urteko eszedentzia eska dezakete, jaiotzaren egunetik kontatzen hasita. Epe hori konputagarria izango da antzinakotasunean eta lanbide-karreran. Gainera, hiru urte horiek %100eko kotizazioa izango dute gizarte segurantzari. Lanpostua, gutxienez, bi urtez erreserbatuko da. Epealdi horretan Osakidetzaren ikastaroetan parte hartzeko aukera dago.

**Finkoak ez diren Osakidetzako langileek** haurren zaintzarako baimen berezi bat dute. Baimenak gehienez hiru urteko iraupena izango du, jaiotza egunetik kontatzen hasita, eta eszedentzia laburragoa izan daiteke kontratua bukatzen bada. Gizarte segurantzaren kotizazioa %100ekoa izango da lehenengo hiru urteetan, kontratuarekin jarraitzen den bitartean. Langileak eszedentzia bukatu baino 30 egun lehenago eskatu beharko du lanera itzultzea.

## Baimena izan dezaket senide baten erditzeagatik?

Bai, erditzeak ospitalizazioaren izaera bera du eta eskubide hori 47. artikuluan jasota dago.